

**EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREKIN
ERATUTAKO EKONOMIA ITUNeko
ARBITRAJE BATZORDEA**
Gatazka: 12/2008
Eragindako administrazioak:
Bizkaiko Foru Aldundia
Estatuko Administrazioa
Xedea: BEZa. Administrazio eskuduna
Beste gai batzuk: gatazkaren onargarritasuna:
gatazka negatibo bat planteatu aurretiko
betekizunak, bi administrazioen eskumen
gabeziaren deklarazioa.

Ebazpena. R3/2008

Espedientea: 12/2008

Vitoria-Gasteiz hirian, 2008ko abenduaren 22an, Euskal Autonomia Erkidegoarekin eratutako Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordeak, hain zuzen ere hurrengoek eratzen dutena: Karlos Palao Taboada jn. (lehendakaria) eta Isaak Merino Jara jn. eta Fernando de la Hucha Celador jn. (batzordekideak), hurrengo erabakia hartu du:

ERABAKIA

(ENTITATEA)-k, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunean Aurreikusitako Arbitraje Batzordearen Araudia onesten duen abenduaren 28ko 1760/2007 Errege Dekretuko 13.3 artikularen babesean, planteatu duen gatazkari buruz. Gatazka Arbitraje Batzorde honek izapidetzen du 12/2008 espediente zenbakiarekin.

I. AURREKARIAK

1 2008ko apirilaren 9an, (ENTITATEA)-k planteatutako gatazka planteamenduaren idazkia jaso zen Arbitraje Batzorde honetako erregistroan. Enpresa hori nazionalitate italiarrekoa da, NNNNNNNN IFK zenbakia du, eta azukre inportazioak egiten ditu Paraguaytik. Azukre hori (UDALERRIA)-ko (Bizkaia) Gordetegi Frankoan biltegitratzen da, eta handik banatu Espainia eta

Portugalgo toki ezberdinetan saltzeko.

2 Planteamenduaren idazkiak, labur adieraztearren, hurrengo alderdiak azaltzen ditu:

1) Aitorpena aurkeztu (036 eredu) eta JEZean alta hartu zuen, bai IFZ bizkaitarra eskatzeko, bai Euskal Autonomia Erkidegoan bere jarduerarekin hasten zela aitortzeko. Jarduera hori Santurtzin kokatzen den gordetegi frankotik egingo zuen. Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoan gain hartutako BEZa likidatzea helburu zen, zerga aplikatzen zen lurraldean jasanarazitako bezala.

2) 2004, 2005 eta 2006 ekitaldiei dagokien BEZa itzultzea eskatu zuen, 290 urteko laburpen eredu Foru Ogasunari aurkeztuz. Ondoren, Foru Ogasunak ukatu egin zion itzulketa hori eta, gerora, Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboak ebazpen horiek berretsi ditu ere.

3) Zerga Administrazioiko Estatu Agentziaren aurrean aitorpena (36 eredu) aurkeztu zuen ere 2006ko martxoaren 9an, 2004 eta 2005 ekitaldietako BEZa itzultzeko eskatuz, eta beste idazki bat 2007ko ekainaren 15ean 2006ko BEZa itzultzea eskatuz.

4) 2008ko otsailaren 8an, eskaera horiek ebatzi ziren, eta enpresaren nahien aurkakoak izan ziren.

5) Bi administrazioetatik bakar batek ere bere itzulketa eskaerak onetsi ez zituenenez, gatazka hau sustatzea erabaki zuen Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordearen aurrean.

6) Gatazka sustatzeko (ENTITATEA)-k aurkeztutako idazkiko “eskatzen dut” atalean, eskatu egiten du Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Estatuaren artean dagoen eskumen gatazka ebatz dadila, eta zergadunari irizpide argiak eman diezazkiotela jarduteko, horien babesean aritze aldera eta bere jarduera ekonomikoa garatzen jarraitu ahal izateko segurtasun juridikoa eskuratze aldera.

7) Arbitraje Batzordeak kasuari buruzko dokumentazio guztia eskuratu zuen

alderdi interesdunetik, aurrerago alegazioak egin zitzatela jakinaraziz. Bi administrazioek behar bezala egin zituzten horiek.

8) Ezer baino lehen, bi administrazioek adierazi egiten dute ez direla kasu honetan agertzen gatazka planteatzeko eskakizunak, izan ere, (ENTITATEA)-k adierazitakoaren kontra, ez da zehatza esatea biak eskumenik gabe aitortu direla. Gainera, subsidiarioki, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak alegatu egiten du gatazka denboraz kanpo planteatu dela eta, subsidiarioki ere, foru administrazioak dio, edonola ere, itzulketa estatuko administrazioak egin beharko lukeela.

II. ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

1 (ENTITATEA)-k planteatu du gatazka hau, EIABEko 13. artikuluko 3. idatz-zatian xedatutakoarekin bat etorriz. Horren arabera:

Kasuren batean Administrazioetatik inork uste ez badu eskumendun dela, aurreko idatz zatian aipatutako hilabeteko epean (berrespen espresik edo tazitutik hasita) bi administrazioetatik inork Arbitraje Batzordera jotzen ez badu gatazka adierazteko, nahikoa izango da zergadunak, hurrengo hilabetean, inguruabar horren berri ematea Batzordeari, gatazka automatikoki planteatutzat jotzeko.

Aurreko paragrafoko kasuan, Arbitraje Batzordeak bi administrazioetatik edozeinengana eta zergadunarengana jo dezake, gatazka ebazteko behar diren datu eta agiri guztiak aurkez ditzaten.

Hala eta guztiz ere, gatazka ez da izapidetuko zergadunak jakinarazpena egiten duenetik bi hilabete igarota bi administrazioetatik baten batek eskumena onartzen badu”.

EIABEko 13.3 artikuluan beste kasu bat aipatzen da. Haren helburua zergadunak biziko lukeen babesgabetasuna saihestea litzateke, administrazioetatik inork beretzat joko ez balu eskumena zenbait kasutan. Kasu horien artean egongo litzateke esku artean duguna, hau da, zergadunak aurkeztutako itzulketa eskaera.

Espedientean interesdunak nahiz Bizkaiko Foru Aldundiak eta Zerga

Administrazioko Estatu Agentziak aurkeztutako agiri ezberdinak bildu dira. Halaber, bi Administrazioek aurkeztutako alegazioak jaso dira bertan. Bi administrazioek, beste hainbaten artean, bereziki garrantzitsua den alegazio bat egin dute esku artean dugun gai honetarako. Horren arabera, ez dira EIABEko 13.2 artikuluan aurreikusitako betekizunak agertzen, are gehiago estatu administrazioa ez denean eskumen gabekotzat jo, ez espresuki, ezta tazituki ere, 2004, 2005 eta 2006 urteei dagozkien BEZ itzulketa eskaerei aurre egiteko. Hori horrela balitz, Arbitraje Batzorde hau gainerako alegazioak aztertzetik libre geratuko litzateke, eta (ENTITATEA)-k planteatutako gatazka gaitzesteko moduan egongo litzateke. Eta horrela da. Hain zuzen ere, interesdunak Bizkaiko Ogasunaren aurrean eskatu zuen 2004ari dagozkion BEZ itzulketak egitea eta 2005eko ekainaren 1ean ukatu egin zitzaizkion. Ondorioz, 2005eko uztailaren 12an berraztertzeko errekurtsua jarri zuen, eta hura ere 2005eko abenduaren 2an ukatu zitzaion. Hori eta gero, erreklamazio ekonomiko eta administratiboa jarri zuen, eta 2006ko abenduaren 18an errefusatu zioten. Bertan, adierazi egin zitzaion bi hilabeteko epean administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkezteko aukera zuela. Ogasunaren beraren aurrean, 2006ko otsailaren 15ean 2005eko BEZa itzultzea eskatu zuen, eta errefusatu egin zioten eskaera 2006ko martxoaren 8an, eskaera epeetik kanpo aurkeztu izanagatik. Ondorioz, berraztertzeko errekurtsua jarri zuen 2006ko apirilaren 7an, eta hori 2006ko urriaren 10ean gaitzetsi zioten. Beraz, erreklamazio ekonomiko eta administratiboa jarri zuen 2006ko azaroaren 29an eta, 2007ko apirilaren 23an, ukatu egin zizkieten bere nahiak. Idazki hartan jakinarazi egin zitzaion administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez zezakeela bi hilabeteko epean. Azkenik, Ogasunaren beraren aurrean, 2006ko BEZa itzultzea eskatu zuen, eta ukatu egin zioten 2007ko otsailaren 26an. Hori dela eta, erreklamazio ekonomiko eta administratiboa jarri zuen, eta 2008ko otsailaren 13an gaitzetsi zuten. Horren aurka, berriro ere, administrazioarekiko auzi errekurtsua jar zezakeela esan zitzaion, horretarako bi hilabeteko epea izanez. Espedientean ez da adierazi (ENTITATEA)-k errekurtsua jarri duenik auzien jurisdikzioko epaitegien aurrean Bizkaiko Foru Auzitegi Ekonomiko Administrazioaren hiru ebazpenen aurka. Antzeko urratsak egin ditu Estatu Administrazioaren aurrean; horrela, 2006ko martxoaren 9an (hau da, Bizkaiko Foru Auzitegi Ekonomiko Administrazioaren bere erreklamazioa gaitzetsi aurretik), 2004 eta 2005 ekitaldietako BEZa itzultzea eskatu zion hari, eta 2007ko ekainaren 15ean 2006ari zegokiona itzultzea eskatu

zuen. Eskaera horietatik bakar bat ere ez zen aintzat hartu, eta, horregatik, berraztertzeke errekursoak aurkeztu zituen bi kasuetan. Horiei ezezkoa eman zitzaien ere 2008ko otsailaren 1ean. Jakinarazpena 2008ko otsailaren 8an egin zen, AEAZren aurrean erreklamazio ekonomiko eta administratiboa jar zezakeela adieraziz. Aitzitik, ez da hori egin izanaren berri jaso, eta, aldiz, Arbitraje Batzorde honetara jotzen amaitu da.

Horrela, bada, Administrazio bizkaitarrak adierazitako alegazioetatik lehenengoan (19. or.) zera esaten da hitzez hitz: “Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren kasuan, ez da eskumen faltagatik jardueren inhibiziorik jazo, ez espresuki, ezta tazituki ere. Aldiz, zergadunari esan zaio itzulketa itzulketen araubide orokorrari jarraiki eskatu behar zuela, beraz, ez dago interesdunaren aldetik zertan gatazka planteatu”. Beste era batera esatearren, administrazio bizkaitarra bat dator Estatu Agentziak alde zuzenetik gai zehatz honen gainean adierazi zuen ikuspegiarekin (bere alegazio idazkiko 5. eta 6. or.) zera adieraztean: (ENTITATEA)-ri ukatu egiten zaio BEZaren Legeko 119. artikuluan aurreikusitako itzulketa araubideari heltzeko aukera, hain zuzen ere ZAEAko Zerga Kudeaketako Bulego Nazionalak izapidetzen duena. Aldiz, itzulketen araubide orokorraren izapidera jo zezala esan zitzaion interesdunari (BEZaren Legeko 115. artikulua) zein Administrazioaren aurrean esan gabe. Ondorioz, benetan ez da Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren aldetiko eskumen faltaren deklarazio egintzarik jazo.

Labur esatearren, EIABEko 13.2 artikuluan aurreikusitako gatazka planteatzeko beharrezkoa denez, sine qua non, bi administrazioek eskumendun ez direla aitortzea, nahikoa da batek hori egin ez izana betekizun hori bete ez dela ulertzeko. Ondorioz, ez da beharrezkoa adierazpenik egitea beste administrazioa eskumendun ez dela aitortu izanaren gainean, eta, are garrantzitsuagoa dena, ez da beharrezkoa adierazpenik egitea bi administrazioek egindako alegazio subsidiarioen gainean.

Horren ondorioz, Arbitraje Batzordeak zera

ERABAKI DU

(ENITATEA)-k sustatutako gatazkari ezezkoa ematea, hain zuzen ere 2004, 2005 eta 2006 urteetako BEZaren itzulketa eskaerari buruzkoa zenari”.

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio bideari, eta, honen aurka, administrazioarekiko auzi errekurtsoren bidea bakarrik erabil daiteke. Horretarako, bi hilabeteko epea dago jakinarazpen hau jasotzen den egunaren hurrengotik hasita. Errekurtso hori Auzitegi Gorenaren kasuan kasuko Salari aurkeztu behar zaio eta hura Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko Ekonomia Ituneko 64. artikuluekin bat etortzen dena izan behar da.